

ZENBAT BURU

Alberto  
Agirreazaldegia

# BORRREN

rit


Art#Opko

GEHIGARRIA

Kale-zulotik  
baserrira

BERBETAN

Jose Rejok IMH-ko  
zuzendaritza  
utzi du



Erasmus programa  
**Atzerrian ikasi eta  
mundua ikusi**





UZTAILA  
 ILA  
 eta  
 AIA  
 XAK

**UZTAILA TERRAZAN**

**ENTSALADAK**

Toletxe entsalada  
 Txatka entsalada  
 Entsalada mistoa

**KAZUELITAK**

Txanpiak  
 Txorizo egosia  
 Piper beteak  
 Okela egosia  
 Ajoarriero

**BOKATAK**

Karakate  
 Kalamua  
 Morkaiko  
 Antxolin  
 Toletxe  
 Urdaiazpiko tartilla



**SAN BARTOLOMEAK**

**TXIKI EGUNA**

Entsalada mistoa  
 Marmitakoa edo okela gisatua  
 Ardoa + Postrea + Kafea  
 2.000 pta.

ENIRGO 1ERPSN SANO 1\|-111\|

ia 943 74 19 48



**MENU BEREZIAK**

**1. MENUA - 2.000 pta.**

Entsalada mistoa  
 Entsalada errusiarra  
 Marmitakoa

Okela egosia tomatearekin eta pikillo-piperrekin  
 Xerra patatekin  
 Bakailao eta pikillo-piperren rebueltoa

Ardoa + Postrea + Kafea

**2. MENUA - 3.000 pta.**


Toletxe entsaiada  
 Entremes hotzak  
 Berakatz fresko, ganba perretxikoen rebueltoa

Bakailaoa Bizkai erara  
 Atuna tipularekin  
 Entrekot-a  
 Konfit-a

Ardoa + Postrea + Kafea



EL,GOIBARKOKIZARRA



ALBERTO  
AGIRREAZALDEGI

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 iagun iuguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kotaboratzaileen aukeraketa effiterakoart, besteak beste, plurattasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Oporrak

**L**aster clatoz zorioneko oporrak. Gainen dauzkagu. Batzuk Iehenago beste batzuk baino. Hemen ere klaseak daude-eta. Baina utz ditzagun bakean ikasle eta irakasleak, hauek beti kexa ugari eta pribiligiatu batzuk besterik ez dira-eta. Beno, neuk ere berdina egiten nuen kasta honi'eta-koa nintzenean.

Oporrak pretniazkoak direnik ez dit inork ukatuko. Are gehiago gizarte konpetitibo eta estresante honetan. Lan-eternaldi bat egitea beharrezkoa eta osasuntsua dela derizot.

Baina, zertarako oporrak? Zer egin opmetan? Kanpora joan, eta zenbat eta urrutiago hobe. Hau da gaur egun gehienek diotena. Itzultzean munduaren beste aldeko puntan zein bazter politik dauden esateko, nahiz eta hegazkinek ikusitako uhartea izan gogoan. Edo toki exotikoe-tan ateratako argazkiak erakutsi sekulako "txapa" sartzen duten bitartean. Gameluak, fokak edo elefanteak bistan direlarik ateratako erreportajeak eta hamar-hamabi pelikula ateratako "rolloak".

Orain oporrak ez dira ulertzen bidaiatu gabe eta bidaiak ez dira Galiziara edo Zuberora, noski. Bidaiarik egiten ez duena gaur ez da inor. Zer esan behar du bestela buelta-koan? Herria zaintzen egoten dena udaltzaina edo suhiltzailea da azken urte hauetan. Dirurik ez izan arren kredituak eskatzen

omen dituzte bidaiatu gabe ez gelditzeko. Bidaien destinoa honako edozein: Australia, Cancun, Borneo edo India. Toki-izenak ere zenbat eta exotikoagoak hobe: Sri Lanka, Papua, etab., nahiz eta batzuk, itzulitakoan ere ez dakiten mapan aurkitzen, bisitatu duten toki hori.


Oraindik orain oporrak beste modu batean pasa nahi dituenarentzat badauzkat plan alternatiboak, nahiz eta nire gomendioaren beharrik ez izan seguru asko. Pirineotako edozein bailara aukeratu eta aterpez aterpe zeharkatu. Aste bat edo pare bat izanez gero eta mendian ibiltzea gustuko ez duenarentzat Landetan zehar bizikletaz ibili eta Atlantikoko ur bizietan bainatzeko aukera polita ez galdu. Oporrak eta kirola uztartzea modukorik ez dago eta lagun egokiekin bada, askoz hobe. Bizikletari zakutoak jarri edo motxila

hartu bizkarrean eta opor ahaztezinak egin daitezke. Inguruak ezagutu, kirol piska bat egin eta lasai-lasai inongo presarik gabe.

Pelikula famatu hark zioen bezala, bizikletak udarako dira. Nik behintzat, uda nahiz negu, bizikleta daramat bidailagun. tzea helburu izan gabe, bidaiak politik egin daitezke. Lagun artean edo lagunak egiteko ere aukera aproposa da. Opor desberdinak egin nahi dituen animatu nahi dut. Seguru ez dela inoiz damutuko!

**"Orain oporrak ez dira ulertzen bidaiatu gabe eta bidaiak ez dira Galiziara edo Zuberora, noski. Bidaiarik egiten ez duena gaur ez da inor. Zer esan behar du bestela bueltakoan?"**

## Barrak, Birrak eta Barreak







Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGO1BAR  
943 74 41 12

Publizitatea:

Ir 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

AFIGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Eli Aizpuru
KAZETARIAK	trati Agirreazaldegia, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLAIZORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aizol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Malle Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTIALEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udaltzaia, Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura Sailak eta  
Foru Aldundiak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza  
obra social*

MDAMO BAT

o m  
GRUPO DANORAT

## Gure eskubide politikoen alde

T arunbat honetan, eguerdian, EILigoibarko Plazaz Handian sinadurak jasotzeari ekingo diogu. Sinadura hauek Udaltzari bidaliko dizkiogu eskaera bakar batekin: behingoz Udaltzak ekin diezaiola Euskal Nortasun agiriak egiteari eta banatzeari honela eskatzen duen guztiari. Euskaldun eta abertzale mordo batek nahi ditugu gaurdanik gure eskubideak praktikara eramatea: euskaldun bezala nahi dugu bizi gure herrian. Eskubide guztia daukagu eta ez diogu itxaron nahi egun misteriosu bati horrekin hasteko, geroa gaurdanik erakitzen hasi nahi dugulako. Euskal Pilota Federazioak ere honela erabaki du bere azken bileran eta guk bide horretan jarraitu nahi dugu.

Euskal Herria herri bat da, nazio bat eta, horregatik, eskubide batzuk dagozkie. Baina gaur egungo errealitate bestelakoa da: bi estatutan zati-tua, administrazio diferenteetan banatua, bere hizkuntza eskubideak zapalduak erabat Frantziar estatuan eta Nafarroan, eraso latzak jasotzen Elkarte Autonomoan, bere eskubideak erabat ukatuak estatu bien aldetik, txantaje ekonomikoak sufriarazten (azkena Hobetuz delakort egin nahi diona, 4.5(10 milioi). Demokrazia ez da oraindik iritsi Euskal Herrira. Guk eraiki behar dugu gure demokrazia. Parisek eta Maastrichtek ezetza besterik ez daukate beren ahoan baina ez dugu onartzen beraien betoa, ez gara besoak gurutzaturik egongo iritziz aldatu artez guk aldarazi behar ditugu. Abertzale, demokrata, aurrerakoi guztiok erronka handi bat daukagu aurrean. Hasteko, larunbat honetan aukera daukagu eskaera egiteko Udaltzari behingoz Euskal Nortasun Agiri ofiziala martxan jar dezala.

P.M.

NA. 15.357.275

Bai Euskal Herriari

Ekimenaren izenean

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazilakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahazlu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NA** eta **telefono zenbakia**.

## GALDERAK

• Santa Ana kaleko biztanleen izenean bizilagun batek honako galdera hau helarazi digu. **"Gorpuen inzineradora** Sigmako pabilioietan egiteko asmoa dagoela irakurri dugu. Behin horrelako gauza bat egiten hasiz gero, **nola liteke herri barruan ipintzea?** Gainontzeko herri guztietan hiri-barrutik kanpo egiteko joera ikusita, ez al dago Elgoibarren leku aproposagorik?"

Guk, BARRENetik udaletxera jo dugu eta honako hau erantzun digute Hirigintza Sailean: "Krematorioa herriari jartzeak Elgoibarrek orain arte izan ez duen zerbitzu bat eskain tzea litzateke. Inzineradora hilerritik gertu egiteko aukera (arau ordezkatzailaetan oinarritutakoa) proiektuan aurreikusitakoa da, hau da, lur industrialean eta bizigunetatik aldentu samar".



## KEXAK

• **Urasandiko zelaian, Herri Eskolaren goi aldean San Juan Sua** egin ostean, **zabor ugari** geratu omen da bertan. Ernakume batek esan digunez "ez da lehenengo aldia hau gertatzen dena. Sua egin aurretik barrerak jartzeko ere esan genuen, baina ez ziguten kasurik egin. Eguzkia hartzerajoa ohi gara bertara, eta adineko jendea ere joaten da paseatzera eta lekua ez dago batere ondo".



## 1111511


• GAZ-T aisialdi taldekoek **Gaztetxe**koak txalotu nahi dituzte, eskaini dieten laguntzarengatik. "Erraztasun guztiak ipini dizkigute, harrera ezin hobea izan dugu beraien aldetik, lokala utzi digute eta baita baliabide guztiak eskura eman ere. Ikaragarri lagundu digute GAZ-T festa antolatn".

• Liburutegiko lankideek **Herri Eskolako 6. mailako ikasleak** zoriondu nahi dituzte egin duten urtekariarengatik. Gainera, liburutegian bertan ikusi ahal izango du nahi duen guztiak.




### ESKERTZA

*2000ko ekainaren leian, 73 urte zituela hil zen BARTOLOME OLIVARESen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



### ESKERTZA

*2000ko ekainaren 20an, 77 urte zituela hil zen BERNABE MUJIKITAURZAETAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



**EPOSIMIS** programa:

# Atzerrian ikasi eta munt

## ZER DA 'ERASIVIUSH?

'Erasmus', mundu guztian zehar dauden unibertsitate batzuk euren artean egiten duten iltasle-truke programa da. Ikasleek 6 hilabete edo urtebete pasatzen dituzte atzerriko unibertsitate batean. European, Estatu Batuetan edo Hegoamerikan dauden unibertsitateetara joan daiteke programa honi esker. Hemen hasitako ikasketen jarraipena egiten da atzerrian, baina orokorrean, erratasun gehiagia izaten dituzte ikasleak. Azken finean ikasketek baina, kultura berriak ezagutzeak eta kasu batzutan hizkuntza praktikatzeko dute garrantzia.

## EDOZEIN JOAN AL DAITEKE?

Printzipiaz edozein unibertsitariok du joateko aukera eta eskubidea, baina aurkezten diren artean notarik onenak dituztenek dute lehentasuna. Herrialdea edo unibertsitatea aulieratzeko lehentasuna ere noten arababerakna izaten da. Bestalde, hizkuntza azterketalt ere egiten dira zenbait unibertsitatetan, baina gehiengoak gairitzen ditu.

*Unibertsitarioen artean ohikoa da karrerako azken urtean atzerrira ikasterajoatea. 'Erasmus' unibertsitate batzuk euren artean hitzartutako programa baten izena da. Programa honi esker unibertsitateek ikasle-trukeak egiten dituzte. Gaizka Iglesias 'Erasmus' programarekin Suedian 6 hilabete pasa ostean Elgoibarrera itzuli berri da. Ane Ovejero, berriz, duela 5 urte joan zen Londresera programa berarekin. Aste honetan atzerrian ikasten bizi dituzten esperientziak kontatzeko ekarri ditugu gure artera.*

## Ane Ovejero, Erasmusekin Ingalaterpara

Ane Ovejero 25 urteko elgoibartarrak, Deustuko unibertsitatean Ingeles Filologia karrerako hirugarren ikasturtean hartu zuen atzerrian urtebetez ikasteko erabakia. "Kanpora juteko gogua nakan eta baitxa aurreko urtietan karreran ikasitxakua praktikatzeko gogua ere. Atzerrian urtebete pasatzia esperientzia politxa izan leikela pentsatzen naban, nere kasa baliatzen ikasi biharra eta hori guztia. Londresko unibertsitate bat aukerau naban. Kultura pilo bat batzen ditxun hirixa da eta hori oso erakargarria iruditxujatan". Ane klaseko beste lagun batekin joan zen Londresera, "erresidentzian tokirik ez zauala-eta, etxe baten egon ginan beste hiru ikasle inglesekin batera. Berez, nahiko

**"Bizi zeran tokitxik urtetzen ez bazera, gauza asko ikusi gabe lagatzen ditnizu".**

itxixak dia inglesak, baina gure etxeak oso jatorrak zian eta ez jakun batere kostau integratzia". Esperientzia berrien bila joan zen Ane atzenira eta ez da damutzen hartu zuen erabakiaz, "handik aldatuta etordtzan. Gauza benixak ikasten ditxuzu eta baitxa gauzak apreziatzen ere. Bizi zeran tokitxik urtetzen ez bazera gauza asko ikusi gabe lagatzen ditxuzu. Behin hasiz gero, leku berri gehixo ezagutzeko gogua sortzen jatxu, gainera, Londres holakua baldin bada, zelakua ote da beste haurra? galdetzen diozu zure buruari. Bestalde, ikasketek ez ziaten denbora gehixegi kendu, eta era eta kolore guztixetako lagun mordo bat eitxeko aukeria euki naban. Nere karreran esaminak ingeleses eitxera ohitxuta nauanez hizkuntzia ez zan oztopua izan. Gainera, bi esarnin bakarrik ein nitxuan, batez ere lanak bialtzen zizkiguten-eta".



*Era eta kolore guznetak lagunak egiteko ap» ra' eduki zuen Anek Londresen.*



# ikusi



## HezkunUa sistema desberdina

Anek ikusteko aukera izan duenaren arabera, Ingalaterrako eta Euskal Herriko irakaskuntza sistemak oso desherdinak dira, "hemengo ikasteko sistemian hangua baino gogonaua dala iruditzen jata, maila bajuaua dake. Adibidez, astian egun gutxiotan juten dia klasera. Gero, 3 urte pasau ditzut Ingalaterran master bat eitzen eta esaten dotena haiezatzeko aukeria euki dot", Ikasteko ditzuten baliahideei dagokienez, gu baino auneratuagoak daudela azaldu digu Anek, "informiatika, ikusentzunezkuak, alor horretan abantaila asko ditzuzte ikaslien zerbitzura".

## Gaizka Iglesias, Epasmusekin Suediara

**G**aizka Iglesias 22 urteko elgoibartarra ESTEN (Donostian) ari da enpresaritzan ikasketak egiten. Aurtengo azkenengo urtea izan da, eta azken 6 hilaheteak atzenian pasa behar zituela erabaki zuen. "Bizitzarako esperientzia ona izan leikela pentsau nahan eta 'Erasmus' programan apuntau nintzan". Gertutasunarengatik eta hizkuntzarengatik Londres aukeratu zuen, baina Suedia tokatu zitzaion. "Suediaz nakixan bakarria elur eta hotz asko eitzen duen herrialdia zala zan. Suedian egon astian, nere ikuspuntua erahat aldau da. Hotz ez da hainhestekua izan, erropa termiko pi-

**"Mundu guztitik jundako ikashekin elkarbizilien egon gera, italianuak, grieguak, rumanuak ..."**

*Suedian egon den sei hilabeteetan leku ezberdin asko ezagutu zituen. Argazki hau adibidez, San Petersburgon aterata dago.*




lo hat sartu genitxun ekipajian, baina ia ez ditzugu erabili, -10° tik aurrera bakarrik igartzen da benetako hotza. Oso esperientzia ona izan da".

Gaizka Uppsala herriko unibertsitatean egon da, Estokohno hiriburutik ordu erdira. ESTEko 6 lagun joan ziren Suediara eta ikasleentzako urbanizazio batean egon dira. "Mundu guztitik jundako ikasliekin elkarbizitzen egon gera, italianuak, grieguak, rumanuak, etah. Horrenbeste atzerritar elkarreki n egotian giro oso jatorra zauan. Jendia oso irekixa zan, danak lagunak eitzekeo go guakin zaozen-eta. Suediarrak bakarrik izanez gero, ez dot uste horren giro onik sortuko zanik, izakeraz hotzauak eta indibiluak listauak baitia. 16 urtekin etxetik alde eitzen dabe, baina bizi maila altua dakatenez, erreztasun asko ditzuzte. Oztopo eta konplikazio askorik ez dakatenez, konformistegixak ez ote dian irudipena dakat. HOITegatik, agian, hotzauak dia, gatzik gabiak. Guk ez dauzkagu euren ditzuzten erreztasunak, baina bai beste bizitasun hat, aurrera ateratzeko gure kasa haliatu bihar dogulako, agian". Bizi maila altua izan arren, European suizidio gehien Suedian gertatzen dira, "eguraldixak eta neguko argi faltiak (neguan eguerdiko

15:00etan iluntzen dau) zeresan haundixa dake. Holako gauzak izkutatzen saiatzen dia".

## Inguruak ezagutzuz

Suedia toki interesgarri askotatik gertu dagoela aprobeztatuz, inguruko herrialde gehienak ezagutu ditu Gaizkak, "Eskandinabia guztixa bisitatu dogu. Noruegan fiorduak ikusi genitxuan. Noruega menditsua da oso eta Suedia, berriz, laua eta lagoz betia. Finlandian Helsinki hiriburuan izan ginan. Biaje ikusgarrixenetakua Laponiara (Ia ipar poloan) ein genduna izan zan. Elur motuetan eta txakurrek gidatutako tri-neuetan ibiltziar aparte, aurora boreala ikusi gendun". Naturaren ikuskizun hau miresten ari zirela japoniar telebista batean agertu ziren, gainera. Laponian izotzezko hotela ere ezagutu zuten. "Izotzez egindako hotela zan; logelak, sarrera, benetan ikusganixa zan". San Petersburgon (Errusian), Copenhagen (Dinamarkan) eta Talin-en (Estonian) ere izan ziren.



*Laponiara izotzezko hotel hal ikusteko aukera izan zuten Gaizkak eta bere lagunak.*

Gay eta leshianen nazioarteko eguna izan da aste honetan

# Hobera egin al du gay eta leshianen egoerak?




**M.CARMEN GONZALEZ**  
53 urte, etxekoandrea

Zertxobait bai. Lehen haurrak ezin zituzten adoptatu. eta orain leku batzutan posible da. Hala ere, jendeak oraindik baditu aurritziak, gai 'tabua' izaten jarraitzen du.



**BERNARDINO TAPIA**  
49 urte, industrialia

Hobera egin duela uste dut, asko entzun den gaia da-eta. Ez dut gay edo leshianarik ezagutzen, baina entzundakoaren arabera, badirudi aurritzi gutxiago dagoela.



**FLOREN ANGULO**  
43 urte, enpresaria

Orain hobeto ikusita daude eta onartzen dira. Dena den, hori beraiei galdetu beharko litzaieke. Ez dut inor ezagutzen eta ikusten ductana beste rik ezin dezaket esan.



**SUSANA SAEZ**  
34 urte, etxekoandrea

Oraindik ez. Ez gizartean, ezta legearen aurrean ere. Ezagunak baditut. Hauen artean badira paso egiten dutenak, eta jendeak esango duenarekin kezkatzen direnak ere.



**MAFII CARMEN CALLEJA**  
41 urte, etxekoandrea

Bai. Gauza asko erreibindikatu dituzte eta egoerak hobera egin duela uste dut. Elgoibarren badaude gay eta leshianak eta herrian diren bezala onartuta daude.



**IGNACIO MUGERZA**  
57 urte, delineantea

Lege aldetik egon da hobekuntzarik, nahiz eta eskutakoz guztia ez lortu. Ezagutzen ditut batzuk eta oraindik gauza asko dagoela egiteko ikusten da.

*Gaixak ondo pasau!*

*Aurrez enkarigatuz gero hobe!*

# SAN PEDRO

## JATETXEA

**SAN PEDRO AUZOA • TEL. 943 74 00 10 • ELGOIBAR**





# Osasunean adituak

## GAIA:

## USTEAK ERDIAK USTEL

**B**adira osasunarekin zerikusia duten hainbat topiko, jendearen esamesek tipiko bihurtu dituztenak, baina benetan egia ez direnak. Udara gainean dugun honetan eguzkiarekin, bainuekin eta aire egokituarekin zerikusia duten hainbat de emango ditugu:

1- Sonbrilapean ere eguzkiak ematen du. Egun lainotsuetan edo sonbrilaren babesean egonda eguzkiak kalterik egiten ez duela usate du askok, baina henetan ez da horrela. Sonbrila azpian egonez gero eguzkiak zuzenean ez du jotzen, noski, baina bai, ordea, hondarretan islatu ondoren. Beraz, beti da beharrezkoa babesarako kremak ematea, batez ere goizeko 10:00ak eta anatsaldeko 16:00ak bitartean.

2- Eguzkiak ez ditu beti zauriak zikratizatzen. Alderantziz, eguzki izpiek zauriak sendatzea zaildu dezakete. [zan ere, orhainek (zikatrizek) melanina gutxiago daukate, hau da, eguzki izpietatik babestuta daude.

3- Korronteek eta aire egokituak katarrorik ez. Nahiz eta askok hala uste, ez da egia hotza denik katarroa harrapatzeko anazoi bakarra. Mota horretako infekzioak batetik bestea-  
rengana pasatzeko bi bide daude: doministikuak eta eztula.

4- Ez dago digestio-ebaketarik. Beti uste izan dugu jatorduen ondoren bainua hartzeak digestio-ebaketa eragin dezakeela. Baina liseriketa hodiko mugithenduak ez dira eteten, alderantziz, digestioa egiten ari garenean odolaren fluxua handiagoa da. Beraz, uretan era zakar-  
an sartuz gero zirkulazioan alclaketak gerta daitezke, odolak bihotzera buelmtzeko zailtasunak izan ditzake eta ondorioz itolarria sentitzeko aniskua egoten da. Honi hidrokuzioa deitzen zaio, eta ez digestio ebaketa.

## MASAJISTAK

### Victoria iraegei

PM Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:30-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masajea, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda (Medikuntza naturala, iriodologia, masajea, reiki, yoga. Klaseak egunera)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optometria, kontaktologia, tonometria, campimetria, audiometria)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Jose Artetxe, 10 • Tel. 943 15 75 74 (Azpeitia)

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

### Itziar Sarasketa

..... San Francisco, 12 \* Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

### Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

### Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

## PSIKOLOGOAK

**Nare psikologoak** (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ral**

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeke 943 74 41 12ra


# Elgoibarko enpresei buruzko artikulua kaleratu du 'Financial Times' egunkari ingelesak

Makina erremintaren arloan gure herriak duen garrantzia azpimarratu du

'Financial Times' egunkari ekonomiko ezagunak Elgoibarko enpresei buruzko artikulua bat kaleratu zuen joan den asteartean, hilaren 27an. Bertan, Makina Erremintak gure herrian duen garrantzia azpimarratzen du. Lehenengo Espainiari buruzko artikulua orokorra kaleratu zuten eta orain hainbat sektore industrialek herria ezberdinetan duten esan alna aztertzen ari dira era honetako idatzien bidez. Makina Erremintak Euskal Herrian eta bereziki Elgoibarren duen garrantzia ikusita, gure Itenia bisitatu eta beraien egunkarian honen berri eman dute.

Elgoibarko enpresetara bisita

Horretarako, Peter Marsh kazetaria Elgoibarren eta Azkoitian izan zen eta 'Etxe-Tar' eta 'Danobat' enpresez gain, IMH ikastetxea ere bisitatu zuen,



hemendik aterako baitira Makina Erremintaren arloan lan egingo duten gazteak. 'Etxe-Tar' enpresan esan digutenez, "Elgoibarren urte luzetan Makina

Erremintak izugarritzko garrantzia izan du, baina inor gutxi gogoratzen da gure herriarekin, beraz, maila horretako egunkaria hona etortzea eta ale baten orri bat eskaintzea izugania izan da herriarentzat. Gainera, 'Financial Times' munduko leku askotan irakurtzen denez, oso esanguratsua da, ez soilik bertan aipatutako enpresentzat, oro har Elgoibarko industriarentzat baizik".

AFMren bitartez antolatutako bisitaldi honek, beraz, eman du bere fruitua eta Elgoibarren irudia mundura zabaltzeko balio izan du. 'Etxe-Tar' enpresakoen arabera, "hau irakurrita bat baino gehiago gogoratu da behin edo behin ezagutu zuela Elgoibarko enpresaren bat, eta oraindik arlo honetan lanean ari garela ikusiko dute". Elgoibarko industriak munduan zehar zeresan handia eman deza keela erakutsi du egunkariak.

## • Euroaren kanpaina irailean egingo da

Ekainaren amaieran Elgoibarren egitekoa zen Euroaren kanpaina irailera atzeratu dute. 'Debegesa'-tik adierazi digutenez, bitartean dendariekin harremanetan jarraituko dute kanpainaren antolatzailerak. Beraz, aurrez Kultur Etxean informazio gunea jarri zutela adierazi bagenizuen ere, oraingoz ez da inor han egongo. Irailean, erosketak euroekin ordaindu ahal izango ditugu Elgoibarko dendetan.

## • Institutuko zozketa

Elgoibarko Institutuko zozketaren ZENBAKI SARITUA 139a da. Erretserba, berriz, 327a. Saria jasotzeko epea, uztailaren 16an bukatuko da. Zozketatutako minikatea jolas aretoan jaso daiteke.

## Giro ona izan da Altzoliallo San Juan jaietan

Jende asko gerturatu zen Deba ibaian jarritako sua ikustera



Altzolalco jaiak amaitu dira, eta San Pedro bailarakoen txanda da orain. Altzolatarrek eguraldi ona lagun izan zuten asteburuan eta jaietan gozatzeko aukera aprobetxatu zuten auzotaffek eta bertara joanclakoeak. San Juan bezperan txaflligek eta kanpai zaratak aurretik asteburu bikaina zutela adierazi zien auzotarrei. Plazan jarritako zuhaitzak zutik iraun zuen astebukaera osoan. San Juanak ez ziren berdinak izango plazan zuhaitzik egongo ez balitz. Amaiera ere suzirikin eman zioten, jaien bukaerako trakarekin. Tartean musika eta dantzarako aukerarik ez zuten galdu eta zezentxo zein poniekin ere batek baino gehiagok gozatu zuen. Agur bada Altzolako San Juanei eta ongi etorria San Pedro bailarako jaiiei. Hurrengo urtean gehiago eta ahal bada hobek.

*Zezentxoek ikusmin handia sortu zuten auzotarren eta bertaratutakoeren artean.*





## Elgoibarko Institutukoak ikashidalan izan dira Parisen. Belgikan eta Holandan

Elgoibarko Institutuko ikasleek Kurtso amaierako bidaia egin dute. Batxillergoko azken ikasturtea eta selektibitatea amaitu ostean, ikasketak ahazteko, batzuk Parisen izan dira astebetetz eta besteek, Frantziako hiriburuaz gain, Holanda eta Belgika ere bisitatu dituzte. Besteak beste, Notre Dame katedrala edo Bruselako Atomium eraikin ezagunak bisitatu dituzte. Oso ondo pasa dutela esan digute.



## Herri Eskolako haurrak Zarautzen eta Deban izan ziren txangoan

Argazkiko hauek Herri Eskolako Haur Hezkuntzako neska-mutilak dira. Kurtso bukaerako irteera egin zuten duela gutxi, eta esan digutenez, egun zoragarria pasa zuten. Zarauzko 'Kamelot' jolas parkean izan ziren lehenengo, eta ondoren, Debara joan ziren bazkalitzera. Ikasturtean eskolan ibili ostean haurrei ere iritsi zaizkie merezitako oporrak.

## Ohorezko matrikula eskuratu dute Institutuko zortzi ikaslek

Argazkikoak 99/00 ikasturtean ohorezko matrikula eskuratu duten Elgoibarko Institutuko ikasleak dira. Goian ezkerretik hasita: Miriam Ruiz, Miriam Garcia, Oier Irazabal, Izaskun Sarriugarte, Susana Torres eta Lore Casado. Behean makurtuta: Malen Horton eta Maddalen Bergara. Titulu honen bidez ikasketetan egin duten lana saritu nahi izan da. Institutuko irakasleek eta ikaskideek zorianak eman nahi dizkiete ikasturtea hain emaitza onekin amaitu dutelako.



## Pilarren ikasketak amaitu dituzten ikasleei agurra egin zieten

Pilar ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleek agur festa egin zuten. Irakasleekin eta gurasoekin batera hamahiru urtez beraien ikastetxea izan denari agur esan zioten. Orain Pilar utzi eta beste ikastetxeren baten jarraitu beharko dituzte ikasketak gazte elgoibartar hauek.



- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK **EUSKARAZ** eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- IZENA EMATEAN 7010EKO BEHERAPENA

**gabate erap autoanut syealek ten144 16 Inteteldpt, lata,**

**LAR ÑAGA**  
A U T O E S K O L A  
Tel: 'W374 10 11



## Arrakasta izan zuen IKanta Cantemusi koruaren emanaldiak

Biar-Dana elkartearen 50. urteurreneko ekitaldien banuan 'Kanta Cantemus' abesbatzak emanaldia eskaini zuen Parrokian joan den larunbatean. Elizan jende ugari elkartu zen emakumez osatutako koru honen doinuak entzuteko. Javier Bustok sortu zuen abesbatza eta bera da zuzendaria ere. Emanaldian euskal abesti ezagunak eta abesbatzetzako hainbat kanta tartekatu zituzten eta bertaratutal«) jendea gustura geratu zen entzundakoarekin.

## 161 haur eta gaztek eman dute izena Atxutxiamaiaka eta Gaz-Tren udalekuetan

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiaka Aisialdi Taldeak eta GAZ-T taldeak antolatutako Udalekuetan guztira 161 haur eta gaztek hartu dute parte. Atxutxiki eta Guatxiatxutxi udaleku irekiak astelehenean goizeko 9:30ean hasiko dira Plaza Handian eta 118 lagunek eman dute izena. Udaleku itxiak Aubixan eta Arrokaundietan izango dira eta azken honetarako izena eman duten 6 higunak Plaza Handitik aterako dira astelehenean, arratsaldeko 5:45ean. Azkenik, GAZ-Trekin Oriora 7 gazte joango dira eta Martzaara, berriz, 11 lagun. Bestalde, martxan dira GAZ-T taldeak Udalaren laguntzaz antolatutako sexualitateari eta dmgei buruz,ko tailerrak.



Argazkian, GAZ-T taldeak antolatutako sexu eta droga tailerretako ikasleak.



## Ekainean ekitaldi togarii izan da Toletxe tabernan

rpletxe tabernatik jaso dugun prentsa oharraren arabera, ekain benetan mugitua izan dute Elgoibarko Izarraren taberna berrian. Kultur Errotako bi emanaldi, diapositiba saioa, antzerkia eta San Juan bezperako afaria izan dira ekaineko jarduerak. Toletxeko zuzendariak esan digunez, "benetan gustura gaude jendearen partetik jaso dugun erantzunarekin. Bi jarduerak azpimarratzekotan.

diapositiba emanaldia eta San Juan bezperako afaria aipatuko genituzke. Diapositibak eman genituenean taberna gainezka izan genuen eta giroa benetan ederra izan zen. Afarian, berriz, ondo afaldu ostean, Agurtzane Garzia eta Mari Juli Arregiren gidaritzapean, hamaika euskal kanta zahar kantatzen gozatu genuen afaltzen izan ginen 43 lagunok". Amaitzeko, Toletxetik esan digutenez, kultur jarduerak mantentzea eta ahal den neunian hobetzea da beraien asmoa.

**RAKS**  
KAFETEGIA  
943 74 42 65

**JOSE**  
(Txenta)

**-Nlota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, mokatak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



# San Rokeko ermita ballarako ezaugarri

*San Rokeko ermita izen bereko bailararen gune espiritualala izan da mendeetan zehar. Bere itzalean eraikiak dira besteak beste Azkue, San Roke, Sakristaukoa, Zelandi, Panparron, Gurutze eta beste hainbat baserri. Urrutiago Karakate mendiren magalean sakabanatuta daude gainontzekoak.*

**S**an Rokek, gainontzeko nekazal auzuneez ez bezala, eskolarik ez zuen izan, ezta jai egunetako mezarik ere. Kaletik gertu egonik auzotarrak herrira jaisten ziren zerbitzu hauek behar izanez gero. Hala ere, elizak zutik iraun du, eta aldamenean plaza eta bolatokia ditu.

Ez dago, edo oraindik ez da aurkitu, San Rokeko ermita eraiki zeneko dokumentu idatzirik, baina aurkitu den baselizari buruzko aipamenik zaharrena 1451. urtekoa da.

Udal artxiboko bilera aktetan irakurritakoaren arabera, azken hiru mendeotan San Rokeko ermitan hainbat konponketa egin dira. Jasotako lehen lanak 1696koak dira Simon Muguruzaren aginduz ermita eta serora etxea konpondu ziren,

## Azken hiru mendeotan San Rokeko ermitan hainbat konponketa egin dira.

obrak premiazkoak baitziren. Azkenak, berriz, 1856an. Obrak egiteko dirua Jose Joakin Etxeberria sakristau berriak ordaindu zuen kargua hartzeagatik.

Bestalde, ermitako atarian baseliza 1888an Sebastian Uribek berreraiki zuela ere ikus daiteke argi eta garbi. Beraz, hain gutxi erabiltzeko ermita ongi zainduta zegoela esan behar da.

Eliza xumea izan arren, bere baitan baditu hainbat irudi eta margo esanguratsu. Ermitako `absidea'n zuzeko hiru erretaula daude, polikromiaz apainduak. Ezkerreko aldareko irudi nagusia San Bizente da, eskubikoa Andra Maria Mirarizkoa eta erdikoa,



berriz, San Roke.

San Rokeren eta San Bizenteren irudiak zurez eta izkutuz landuak dira, bata barrokoa eta gotikoa bestea. Kristo gurutziltzatuaren irudia ere badago koruaren azpian. Hasieran beste irudi bat bazegoen ere, lapurtu egin zuten eta sakristiako Kristo gurutziltzatu jarri zuten bere ordean. Aurpegian espresio handia du irudiak. Andra Mariaren irudi txikia sakristian dago. Burua eta eskuak baino ez zaizkio ikusten eta gainontzekoa ohialez estalita dago. Inor gutxik jakingo duena zera da, Andra Mariaren irudiak ileorde naturala duela, eta panpin baten itxurako aurpegia. Aita Anasagastiren esanetan, haur espresioa dauka. Inon ez da aurkitu irudi honi buruzko dokumenturik, beraz, ezin da ziur jakin zein garaitakoa den.

Ondo hornitua dago, beraz, San Rokeko ermita, baina mendeetako denboraren joanak berriz hondatu du eta berritze lanak martxan dira. Auzotarren

## Denboraren joanak berriro hondatu du eta berritze lanak martxan dira.

iniziatibaz, ermita gainbehera zegoela ikusita zerbait egitea erabaki zuten. Lehenengo teilatua konpondu zuten eta baita ermita aurreko aterpea ere. Teilatupea ere egurrez estali zuten eta koroa eta eskilarak ere konpondu zituzten. Ondoren, auzolanean baseliza kanpotik konpontzen hasi ziren eta orain barrua berreraikitzen dihardute Debemeneko brigadako langileek. Auzolanean hormak pikatzen hasi eta kanterako harria zegoela ohartuta, harria ateratzeko erabakia hartu zuten. Behin harria kanpoan zela, egun lau lagun ari dira lanean eta hormetako harria ateratzeaz gain, bitarteak beteko dituzte dotore gelditzeko.

Lanak aurrera doaz eta uztaile amaierarako bukatuko dituzte, edo hori nahi da behintzat. Izan ere, auzotar bat San Rokeko ermitan bertan ezkonduko da. Bestela urtean zehar ez da mezarik izaten baselizan, jaietakoez gain.

B ASERRIARI BURUZKO GEHIGARRIA

## SANDRA PINACHO:

### "San Pedroko kanpiak asteburu hatzuetan Benidorm ernaten dau"

*Sandra Pinacho Iriartek, jende askok ez badaki ere, San Pedroko zelaia zaintzeko ardura dauka udaran. Laz ere aritu zen lan horretan eta aurten irailera arte kanpara joaten direnek zelaia ahalik eta egokien zain dezaten eta arauak bete ditzaten saiatuko da. Gu Sandrarenkin hizketan egon gara eta berak eman dizkigu egiten duen lanari buruzko hainbat argibide.*

Noiztik diharduzu lan honetan?

- Nere lagun batek iaz laga ein zaban eta komentau zian lanpostu egokixa zala. Presentau eta hartu ein ninduten, eta aurten ere berdin. Lau hilabete eingo ditzut.

- Zein da zure lana?

- Zelaixa ondo rnantentzia, komunak garbitzia, belarra moztia eta batez ere jendiari arauak bete araztia. Aste bukaeretan, egualdi ona dauanian San Pedro bete eitzen da eta kotxiak ondo aparkatzeko esan bihar izaten diot jendiari. Astian zihar, be-

rriz, nere airera ibiltzen naiz, belarra moztu, eta asteburu ailegaten danerako gauzak preparatzen.

- Zein arau errespetatu behar dituzte San Pedrorra joaten direnek?

- Jendia ailegaten danian kotxiak nahi daben bezela laga ezkerre ez dia danak sartzen, beraz, arauetako bat aparkatzeko nere instrukzibak betetzia da. Bestalde, txakurrekin ere egoten da arazorik. Jendia mendira txakurrekin juten da eta han debekatuta dao. Orduan, kanpara jutekotan lotuta eruateko eskatzen diuet, neri ere penia ematen dialako haraino txakurrakin jun eta bueltan bialtzia.

- Baserritarrek nola hartzen dute kaletarrak beraien bailarara joatea?

Kaleko jendia juten danian mugimendu gehixo egoten da eta eurak pozik hartzen ditzue. Ni ere auzoko jendia-kin oso ondo konpontzen naiz, baserritarrak oso jatorrak dia. Lehendik ere ezagutzen nitxuan batzuk Herri-Gainen lanian ibili nintzalako, eta piskanaka danak ezautzen nabil. Umiak ere kalekuak eta baserrikuak oso diferentia dia.

- Jendea hartzeko ongi prestatuta al dago San Pedro?

Bai, oso ondo. Ikusi besterik ez dao astebukaeretan zela betetzen dan. Batzutan Benidorm ematen dau. Jendia bere toailekin, aulkixekin on-

do preparauta etortzen da. Eibartik ere pila bat etortzen dia. Arrate han euki arren, han ez dao kumunik eta horrek asko eitzen dau. Jendiak San Pedron bazkaldu eta gero gri- fuak dauzka fregaua eitzeko.

- Orain barbakoa berriak ere ipini dituzte, ezta?

- Bai, oin dala 10 urte inguru kendu zitxuzten arazuak eoten ziaIalco eta berrixak ipini ditzuzten arren, ez dakitx normarikan egongo dan hauek erabiltzeko. Jun dan urtian jendiak bere barbakook eruaten zitxuan, eta gero dana batuta lagatzen zaben.

Baserri giroa ezagutu behar al da lan honetarako?

Ez, zeozer jakitzeko- tan belar kontua, baina hori praktikiakin ikasten da. Dana dala, noizian behin gal- detzen dot zer komeni dan eitzia. Oin adibidez, frontoian belar berrixa dao eta lehenguan San Pedroko al- katiak esan zian haura moztu ezkerre indar gehixaokin hasiko dala.

- Zein aholku emango ze- Moke uda partean mendi aldera joaten direnei?

- Mendira juten danak normalian badaki zer ein bihar daban. San Pedrorra jutia hondartzara jutia bezelakua da. Nahi dabanak eguz- kixa edo kerizpia daka auke- ran, aparkatzeko tokixa beti dao, kumunak ere badaoz, pizinia bakarrik falta jako. Aholku bakarra txukun tzia eta zakarrak batzia da.





# OTSAURTIA baserri

*Azkarateko bide zaharretik gora egin eta ia gainean eskubitara hartu dugu, gora eta gora jarraitu eta Otsaurtiara heldu gara. Hara gure sorpresa baserria obretan ikusi dugunean. Langileak bertan utzi eta etxeko bizilagunekin aritu gara hizketan baserriko kontuei buruz.*

Jose Ignacio eta Eva orain dela lau urte joan ziren Otsaurtiara bizitzera, beraien semeekin. "Osaba-eta baserriko erreteroa ziren eta gero guk erosi genuen baserria orain dela 11 urte. Osabaren aurrekoak ere errentan egon ziren eta guk erosi artean horrela izan da".

Baserritik bizi al diren galdetu diegunean Evak zorrotz erantzun digu: "Ez, baserritik balcarrik ez dago bizitzetik. Gizonak eta seme zaharrenak kanpoan egiten dute lan eta besteak ikasten daude". Baserritik bizitzekotan terreno gehiago eta ganadua beharko lituzketela esan digute. Gaur egun 17 hektarea inguru dituzte mendian eta gainontzeko bostak zelaietan.

Ganadua ere badaukate, baina ez horretatik bizitzeko adina. "80 ardi dauzkagu eta txahalak erosten ditugu udazkenean, neguan hazi eta udaberrian saltzeko".

Baserriko lanak guztiek egiten dituzte gutxi-asko eta denborarekin izandako aurrerakuntzak somatu dituzte Otsaurtian, "Makinariarekin enfardatu, belarra jiratu... egiten da. Lehen bezala eskuarekin joateko leku txarra behar du izan. Oraindik ere traktorarik sartzen ez den lekuan ibili behar da lehengo erara, baina gu nahiko ongi moldatzen gara". Baserriko lana lotua bada ere lasai antzean hartzen omen dituzte gauzak, beti ere lanak ahaztu gabe. Uda partean ganadua mendian aske utzi eta ez omen dute arazorik ematen. "Buelta guztiak itxita dauzkagu, eta ardiek alde egiten dutenean nahiko lan ematen badigute ere, enazera prestatuta daukagu".

## **Taberna**

Garai batean taberna zegoen Otsaurtia baserrian eta auzotarrak ezezik, beste jende asko ere hurbiltzen zen bertara. "Guk ere ezagutu genuen. Tabernak legalizatzeke kontua etorri zenean ez zuten legalizatu, baina jendea,



## Otsaurtiako apustuak

Jose Ignaciok eta Evak jakin badakite jende asko joaten zela tabernara eta batzuk gaua edo asteburua ere pasatzen zutela bertan. Tabernaren bueltan apustu ugari egiten omen ziren gainera. "Jaiero apusturen bat izaten zen, bata bukatu orduko datorren asterako zer jokatu pentsatzen hasten ziren. Inguruko baserritarrak aizkoran, harri jasotzen, lasterkan... aritzen ziren". Apustuek eta tabernako giroak famatu egin zuten Otsaurtia eta orain dela gutxira arte auzotarren biltokia izan dela esan genezake.

• 0000c00000 m000000m0000c000s\*\*.....

ohiturari jarraituz, beti etorri izan da eta hala zetorrenari ez zitzaion ezer ukatzen. Azken urteetan inguruko baserritarrak jai eguerdian etortzen ziren eta ardo botila bat edo beste edanez tertulian aritzen ziren, orain dela pare bat edo hiru urte laga genuen arte".

## **Etxe berria**

Baserrira heldu garenean obrekin topo egin dugula esan dizuegu, izan ere lehengo baserri zaharraren aldamenean etxe berria egiten ari dira. "Hainbeste lagunentzako etxea txiki geratu zitzaigun. Orain etxebizitza berria egin eta baserria ardienezko preparatuko dugu". Baserria berritzen ari direla ikusita beraien ondorengoei jarraituko dieten galdetu diegu, eta elkarriketa adi-adi entzuten egon den semeetako batek ez digu erantzunik eman; gurasoek, berriz, ez diote baserriko bizitzari etorkizun argirik ikusten. "Terreno asko behar da baserritik bizitzeko eta hemen ez dau-

kagu hainbeste **lur**, semeetako batek gainera kanpoan egiten du lan".

## OUNallit

**Auzoa:** San Lorentzo

**Bizilagunak:**

Migel Zubizarreta, 73 urte;

Jose Ignacio Zubizarreta, 39 urte;

Eva Eizmendi, 35 urte;

Iñaki Zubizarreta, 19 urte;

Iban Zubizarreta, 13 urte;

Iholdi Zubizarreta, 7 urte.

**ILUP hedadura:** 22 hektarea.

**Esplotazioa:** 80 ardi eta

txekorrak etxean hazi eta saltzeko.

Ortua etxerako.


Distantzia: 5 kilometro.

Denhora: hi oïdu.

Zailtasuna: erraza.

# MENDIRIN mendi

## MENDARO-LARRASKANDA-MENDARO



*Larraskanda Deba, Mendaro eta Azkoitiaren artean mugan dago. Garai batean sakrosketa leku garrantzitsua zen.*

Oinez egingo dugu gaurko ibilbidea Mendaron eta inguruetan. Baina horretarako autoz gerturatzea egokia iruditu zaigu Mendaron sartu eta Kilimon bailaran barneratzen den bidea laga eta Garagartza auzoan ezkerretara hartuz, gora egingo dugu.

■ **2** Bihurgune batzuren ostean Santakruzeko lepora helduko gara eta bide nagusiari jarraituz Alkorta baseniarekin egingo dugu topo. Autoa bertan utzi eta oinez jarraitzeko prestatuko gara.

• **3** Tunel moduko pasabide batetatik baserriaren atzeko aldera joango gara. Harri eta lurrezko pistatik, eskumara doana ahaztu, eta maldan gora jarraituko dugu. Berehala hormigoizko pista batera iritsiko gara. Eskumatarara eginaz, ote eta garo artetik Gaintxipitxa mendiaren harkaitzeko gailurrera igoko gara (603 m.)

is **4** Handik beherantz jo eta Leizeta (461 m.) eta Txorikista (601 m.) lepoak igaro ondoren, Otarre mendira iristea lortuko dugu. Errepikagailuak itsusitutako mendixkatik behera dagoen asfaltozko bidetik Larraskanda lepora iritsiko gara.

■ **5** Larraskanda Deba, Mendaro eta Azkoitiaren arteko mugan kokatuta dagoenez, badirudi garai batean salerosketa leku izan zela. Larraskandaren beheko aldean Aitzbeltzeko leize eta kobak daude, eta inguruan ere egin daitezke beste hainbat ibilaldi.

• **6** Gure gaurko ibilbideari amaiera inguru honetan emanda, etorritako bidetik autora bueltatuko gara, Alkorta baserrira, hain zuzen ere. Bidea laburra eta erraza da, baina laino egunetan bidea aurkitzea ez da hain samurra.



*Otarre menditik inguruko paisaia menditsua ikus daiteke.*

Informazioa:

Informazioa Argia aldizkaria



*Jose Rejo eibartarra da baina aski ezaguna dugu Elgoibarren. IMHko zuzendaria izan da proiektu bat besterik ez zenetik, bederatzi urte luzetan zehar. Orain kargua uztea erabaki du. Gaur bertan eskainiko diote agurra bere lankideek eta ikasleek. Berarengana jo dugu erabaki horren berriak hurbilagoetik jakin ahal izateko.*

## "Neure buruari eta denbora eskaintzeko garals iritsi da"

—Zerk bultzatu zaitu lanpostua lagatzeko erabakia hartzera?

- Erabakia pertsonala izan da. Arlo profesionaletik begiraturuz gero, urte hauetan guztietan neure buruaren ardura alde batera utzi dut eta neure bizitza antolatzeke garaia iritsi da, emazteari eta alabei denbora zor diet. Gogorra bada ere 15 urteko alabak honako hau esan zidan: "Orain aitarekin aurkituko naiz".

- Zenbat urte egin dituzu IMHn?

- 9 urte daramatzat hemen. Bizitza profesionala Elgoibarren egin dut, Ingele-rako klaseak eman nituen Institutuan, FPko zuzendaria ere izan nintzen eta bost urte herrian lanean egin ondoren, aldatu beharra zegoela pentsatu genuen, lehengo eskolak enpresen eskaerei erantzunik ematen ez zirelako. Horreta sortu genuen IMH,

irteera hobe baten bila.

—Zer lortzea espero zenu-ten?

- 1986-87an ekin genion proiektuari. Beste eskolak ez zien enpresen eskaerei behar bezala erantzuten, geneukan ekipamendua ere ez zen nahikoa eta baliabide gehiago behar genituen. Etorkez hobe nahi genuen eta ideia horri heldu genion.

—Nola baloratuko zenuke egindako lana?

- Atzera begiratzen dudanean, benetan nik nahi nuena egin dudala pentsatzen dut. Proiektu erraldoi batean parte hartu dut, jende asko izan hai-kara. Nire ametsa egia bihurtzea lortu dut.

—Zer norabide hartuko du-zu orain?

- Maila profesiona] oso altuarekin irtengo naiz IMHtik. Prestakuntza ezin hobea dut. IMHk dena posible dela era-

kutsi dit, ahaleginak eta nora-bide zuzenak aukeraturuz gero behintzat. Eskaintza asko ditut esku artean, baina momen-tuz, pentsatzeko eta neure bu-ntari eskaintzeko denbora be-har dut.

—Erabakia hartu arte, zer?

- Esan dudane bezala, nire familiari denbora gehiago es-kaini behar diot. Bestalde, ki-rola egitea ere gustatu izan zait beti, baina IMHn egin di-tudan urte hauetan ez dut asti-rik ere izan. Orain kirol piska bat egitea ere nahiko nuke.

- Zer ikasi duzu Elgoiba-rren lan egin duzun denbo-rra honetan?

- Alde materialetik begira-tuz gero, jakineko gauzak ika-si ditut, proiektu bat nola ges-tionatu, eskaintzak negoziatu, etab. Baina hori alde batera utzita, aberasgarriena bertako harremanak izan dira. Pena ematen dit lankideak utzi be-harrak.

—Nork beteko du zure le-kua?

- Josean Egaña izango da bertan. Nire ondoan izan da 1986.az geroztik eta ondo eza-gutzen du IMH. Orain arte Fi-nantza-administraria izan da. Uztailaren Ietik aurrera Zu-zendar] lanetan arituko da.

—Zer aholku emango zenio-ke?

- Aholkurik ez nioke emango. Eskatzen dutenari belarria ondo jartzeko beste-rik ez nioke esango.

—Gaur bertan egingo dizu-te agurra, ezta?

- Barrukoek horrelako zerbait egin behar didate eta poza ematen dit, jende asko dator-eta. Baina ez da horren-besterako. Etapa bat bukatu zait, besterik gabe, bizitzak aurrera januitzen du.

JOSE REJO

### EESTEK ESANA

"Makina Erremintaren arloan lanbide hezkuntza mundua bilakatzen lagundu duen borondate eta indar handiko gizona da". EDURNE BILBAO, lankidea.





**Ann Lcuicia**

**A**na 34 rteko mendarotarra da eta Farehamen bizi da duela ia lau urtetik. Medikuntza ikasketak Leioako unibertsitatean egin zituen. Sei urte

izan ziren guztira. Gero, beste bi urtez jarraitu zuen ikasten, MIR ateratzeko asmoz. Baina, ezin izan zuen lortu. "Zaila zen eta hori lortu gabe irteera gutxi nituenez, Ingalaterrara etortzea pentsatu nuen, lan eskaintza zabalagoa baitzen. Orain biak batera egiten ditut, ikasi eta lan egin. Psikiatriako 3. mailan nago eta arlo berean egiten dut lan". Anak aitortu digunez, hasiera batean oso zaila egin zitzaion bertako jendearekin erlazionatzea, hizkuntza zela-eta. "Psikiatryan harremanak hitz eginez egiten dira. Orduan, derrigorrez ikasi behar izan nuen hizkuntza. Inglesak ate asko ireki dizkit eta hemen egotean ere jende desberdin asko ezagutu dut". Lankideen artean adibidez, lagunik onena hegoafrikarra dela esan digu.

Jesus Oregi bergaratarrekin ezkondu eta gero joan zen Ana Elgoibartik. Bitxiena, senarra baino lehenago joan zela da, Jesusen postu seguruago bat aurkitu arte. Lerro hauetatik bikote hau zoriondu nahi dugu, haur bat izan berri baitute, Paul du izena eta biak pozez zorutzen daude. Anak 8 hilabeteko amatasun baja hartu du, gainera. "Hemen aukera hori duzu. Zuk nahi duzun eperako baja har dezakezu". Beraz, laister izango dugu gure artean.

VIAJES "s=nl/ BIDAIAK  
**31L3F10 EXPWSS**

**bidaiak agentziak  
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12

# G O G O R A T U Z

## Romana Urain Ibarluzea

(1928-1977)



- 1926ko abuztuaren 14an jaio zen Mendaroko Garagartza bailarako Garagartza kalean. Garai hartan Elgoibarko parte zen. 7 anai-arreba izan ziren, bera biganena. Bailarako Eskola Publikoan egin zituen ikasketak.
- Romana izena izan arren, Ramona bezala ezagunagoa zen. Bailarako antzerki taldearekin herrietatik zehar ibili zen, bera zen gazteena. 12 urterekin Garagartza bailarako 'Intxausti' okindegian egon zen urtebetez eta bertakotzat hartu zuten. Gero, 'Larrailaga' fundizioan lan egin zuen, 20 urte bete arte. Trebea zen lan honetan. Sarritan gizonezkoek ere apustuak irabazi zituzkien. Piezarik apurtu gabe ardatzak ateratzen eta horrelakoetan jokatu ohi ziren.
- Mariaren kongregaziokoa zen. Sasiola, Azpilgoeta, Altzola eta inguruko erromerietara joan ohi zen lagunekin. 21 urterekin Eibarrera joan zen 'Bravo' emakumezkoen ileapaindegian lan egitera. Mendarotarrak ziren hauek eta bertan ikasi zuen ofizioa.
- 'Nieva.' ileapaindegia ireki zuen Elgoibarren, San Frantzisko kaleko 9an. Gaur e2un bere ahizpak jarraitzen du lanean.
- 1957ko irailaren 28an ezkondu zen Altzolan bertako Karmelo Isastirekin eta 3 mutil izan zituzten: Jose Antonio, Pedro eta Francisco Javier. Errainak berriz, Arantza Huidobro eta Mari Mateo dira.
- Begiratu serioa zuen, baina oso emakume jatorra, sinpatika eta alaia zen. Familia atsegin zuen eta sinesmenekoa zen aldi berean. Bere anaia Pedro Santa Ageda Koruko koplari-buru egiten duena da.
- Zinea, kanta eta dantza atsegin zituen. Jendea ilea ondo apainduta ikustea gustatzen zitzaion. Artean sasoiko emakumea zela hil zen, 1977ko martxoaren 3an, 50 urterekin.

**Juanito Gorostiza**

Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



AS\*

\_45

Urrutira deitu gabe  
bertakook segituan  
konponduko dizugu  
igogailua

☎ 943 82 01 09

Faxa: 943 82 01 62

I ndalezio Ojangueren 2, beheha  
• 20600 EIBAR





A

ste honetan Pedro Agirregomezkortak ekarri digu argazkia. 1943. urteko erretratua da eta Aitzbizkar baserriaren atarian atera zuten. Bertako bi alaba Bartzelonan bizi ziren eta bisitan etorri zirenez, argazkia ateratzea pentsatu zuten. Garai hartan ez zuten argazki kamerarik Aitzbizkarren, baina alabek Bartzelonatik ekarri zutenarekin atera zuten argazki dotore hau. Honako hauek dira bertan agertzen direnak:

Goian. Ezkerretik eskumara: Jose Ma Agirregomezkorta, Petra Agirregomezkorta, Casto Agirregomezkorta (t), Josefa Agirregomezkorta (t), Francisco Agirregomezkorta (t), Ventura Agirregomezkorta eta Pedro Agirregomezkorta.

Behean: Maria Agirregomezkorta, Isabel Ibarluzea (1º), Victoriano Agirregomezkorta (t) eta Salome Agirregomezkorta.




## ESKERTZA

2000ko ekainaren 17an eta ekainaren 20an, 87 urte eta 86 urte zituztela hil ziren **MODESTIA GORROTXATEGI**ren eta **SANTI LEIARDI GABILONDO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako dolunnnak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




## ESKERTZA

2000ko ekainaren 19an hil zen **ELENA OPAKLIA ELORZA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## "2 hilabetetan prestatu genuen koadrilakoak Iguebrantabuesos/ lasterketa"



### Jose Manuel Fernandez

- **Adina:** 31 urte
- **Nork irabaziko du Eurokopa?** Holandak (Ekainaren 23an egindako iragarpena)
- **Gustuko kirolak?** Futbola eta txirrindularitza.
- **Zer da zailagoa, futbolean jokatzeko ala txirrindularitza?** Txirrindularitza, dudarik gabe.

#### - Nola bururatu zitzaizun "Quebrantahuesos" proban parte hartzea?

- Koadrilakoak kafe bat hartzen ari ginen gau batean hasi zen guztia. Txirrindularitza gustuko duen lagun batek eman zigun "Quebrantahuesos" probaren berri. Burua berotu zigun eta koadrilako 6 lagunek proban parte hartzea erabaki genuen. Lasterketati buruzko informazioa eskuratu eta entrenatzen hasi ginen. Duela pare bat hilabete hartu genuen erabaki hau.

#### - Bizikletan asko ibiltzen al zarete?

Ez, pare bat lagunek bizikletak erosi behar izan zituzteta esatearekin dena esanda dago. Saiatu gara entrenatzen, baina ez dugu denbora askorik izan. 4.000 kilometro eginak izatea komeni dela gomen datu ziguten, baina gure koadrilan kilometro gehien egin dituen ni izan naizela uste dut, eta. 1.000 km. besterik ez ditut egin. Hiru aste lehenago igo behar genituen mendateak ezagutzera ere joan ginen badaezpada.

#### - Apusturik izan al da tartean?

-Apostu berezirik ez. Antzerako lasterketaren batean parte hartzen dugun bakoitzean, azkenengoek, lehenengoei zerbait ordaintzeko ohitura dugu, ordea.

#### - Bizikleta gainean horrenbeste ordu egin ostean, zer moduz iritsi zineten helmugara?

-Batek erretiratu beham izan zuen, eta beste batek triomentu txutu bat edo beste pasa zituen beroaren erruz, baina gainontzekoak nahiko fresko heldu ginen. Parte hartzen genuen lehen aldia zenez, lasai hartzea erabaki genuen.

#### - Mendate ezagun eta beldurgarriak igo zenituzten, ezta?

-Bai, Sabt ñanigon hasi eta Jacarantz abiatu orduko Somport da lehenengo mendatea, 16 kilometroko igoera. Behin Frantzian, Marie Blanche igo genuen, 10 kilometroko igoera, azken bostak beldurganiak, Gero, Portalet igotzen da, 29 km.ko igoera.

#### - Zein izan zen zatirik gogorra?

-Dudarik gabe, Marie Blanche igotzea. Ni pasa nintzenez hamarretik hiru oinez zihozten. Portalet ere gogorra da, batez ere azken partean dagoelako. Gainera, beroak asko gogortu zuen lasterketa, une batzutan 35 gradu zeuden.

- **Nolakoa da txirrindularien arteko giroa?** -Giroa izugarria da. Denak daude bata besteari laguntzeko eta animoak emateko prest.

- **Eta ikusleak?** -Ikusleek ere "ehapeau" bat merezi dute. Alde horretatik jarraitatle bereziak izan genituen, koadrilakoen neskalagunek eta lagunek laguntza ezin hobea ernan baitziguten. Autoan jarraitu gintuzten eta behar genituen jantziak eta edariak emateaz gain, asko eskertu genituen jasotako animoak. Bestalde, hasiera ere ikusgarria da, Sabifianigo herria erditik pasa genuen eta, goizeko 8:30ak izan arren jendez gainezka zegoen. Ileak tente jarri zitzaizkidan, garrantzitsu sentiarazten zaituzte.

- **Berriz bueltatzeko asmorik?** -Bai harixe. Proba nolakoa den ezagutzeko aukera izan dugu, eta datorren urtean itzultzeko asmoa daukagu.

Egoitz Mora San Marcial Torneoko konbate batean.



### Egoitz Mora San Marcial Judo Torneoko txapeldun, senior mailan

2000ko ekainaren 25ean, igandean, Irungo Artaleku kiroldegian jokatu zen San Marcial izeneko Nazioarteko Judo Txapelketa. Torneo honetan hainbat lekutatik etorritako judoek hartu zuten parte: Madril, Katalunia, Burdeos, Pau, Portugal, Bilbo, Errioxa... Egoitz Mora Ulaziak 90 kg.tik beherako pisuan hartu zuen parte, eta nahiz eta junior mailakoa izan, ausardia handiz aurre egin zien senior mailako aurkari guztiei. Oso erraz irabazi zien denei, eta horrela, finalera iritsi zen. Finalean Ivan Etxezarreta 23 urteko arabarraren kontra aritu behar izan zuen (Egoitzek 17 urte ditu). Hala ere, Egoitzek "Kata Guruma" mugimendu dotorea erabiliz konbatea irabazi zuen denbora amaitzeko minutu eta erdi falta zela. Udan ez du atseden askorik hartzeko astirik izango, hainbat konpromiso baititui besteak beste, selekzioarekin kontzentrazioa Valentzian eta Fudurako Errendimendu Handiko Zentroan, eta uztailaren 25etik abuztuaren Sera bitartean, kontzentrazioa eta nazioarteko txapelketa Alacanten.



## 24 elgoibartarrek amaitu zuten "Quebrantahuesos" alloturista lasterketa

Jose Manuel Fernandez Susok oroigarria jaso zuen  
10 edizioetan hutsik egin ez duelako

**E**kainaren 18an jokatu zen 'Quebrantahuesos' Zikloturistentzako Nazioarteko lasterketaren 10. edizioa. Sabiñanigotik (Huesca) hasten den proban Frantziako Tourrean igotzen diren mendateak igotzen dituzte partehartzaileek: Marie Blanehe, Somport eta Portalet. Guztira 4.468 zikloturistek hartu zuten parte, tartean Migel Indurain, 5 aldiz Tourreko txapelduna izandakoa. Euskaldunen artean arrakasta itzela du lasterketa honek; 1.500 partehartzailetik gora euskaldunak baitziren, eta horietatik mordo bat elgoibartarrak, gainera. 24 elgoibartarrek amaitu zuten proba.

### Oroigarria Susorentzat

Jose Manuel Fernandez Susok lehenengo ediziotik hutsik egin gabe hartu du parte 'Quebrantahuesos' proban. Lasterketak aurtan 10 urte bete dituzenez, antolatzaileek partehartzalle leialenak saritu zituzten eta oroigarri bana oparitu. Susok oroigarria jaso zuen eta aldi berean, helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra izan zen. 6 ordu eta 8 minututan egin zituen 204 km.ak. Ibilbidea burutzeko behar izan zuen batezbesteko abiadura, berriz, 33'4239Km/h izan zen. Profesionalen pareko abiadurak alajaina!



Argazkian 'QuebraiglitalO's' taster arte hartzera joan ziren elgaibit; animatz Gm zirenak elkarrekin5

## Elgoibartarren

### SAILKAPENA

Izena	Denbora	Postua
1-Jose M. Fernandez Suso	6:08:00	31
2-Martin Dominguez	6:14:00	49
3-Arkaitz Mujika	6:23:00	108
Ortuoste	6:42:00	289
5-Igor Dieguez	6:57:00	448
6-Javier San Andres	7:11:00	620
7-Aitor Aizpiri	7:23:00	839
8-Roberto Gonzalez	7:31:00	968
9-Jose Manuel Esnal	8:34:00	2158
10-Joseba Agirrezabala	8:34:00	2157
11-Ismael Casero	8:37:00	2224
12-Ibon Serrano	8:54:00	2430
13-Jorge Gonzalez	9:06:00	2626
14-Osear Malvar	9:06:00	2627
15-Ramon Fdez. de Jauregi	9:08:00	2733
16-Alberto Agirreazaldegi	9:24:00	2971
17-Pablo Barreneixea	9:29:00	3034
18-Antonio Lendinez	9:33:00	3081
19-Ricardo Aranzabal	9:35:00	3122
20-Inazio Garmendia	9:42:00	3219
21-Ricardo Etxaniz	9:55:00	3345
22-Andoni Etxeberria	10:12:00	3525
23-Mikel Etxeberria	11:01:00	3891
24-J.Manuel Fernandez	11:01:00	3892

## Iñigo Larizek Gipuzkoako Txirrindulari Itzua irabazi du lehen urteko jubenil mailan



Iñigo Lariz txirrindulari elgoibartarrak Gipuzkoako Txirrindulari Itzulia irabazi du. Jubenil mailakoentzako itzulia zen eta Iñigok lehen urteko jubeniletan eskuratu zuen txapela. Sailkapen orokorrean, berriz, laugarren egin zuen. Ostiralean, hilaren 23an, hasi zen itzulia eta 4 etapa egin ostean, astelehenean amaitu zen.

### Elgoibarko Hiria Lasterketa bihar, uztailak 1

Bestalde, Elgoibarko Lagun Taldeak urtero antolatzen duen Elgoibarko Hiria txirrindulari lasterketa bihar, uztailak 1, izango da. Jubenil mailako txirrindulariek hartuko dute parte, eta aurtengoa XX. edizioa izango da. Txirrindulariak Plaza Handitik abiatuko dira goizeko 10:00etan, eta helmuga, berriz, Santa Klara kalean egongo da. Guztira 90 km. egingo dituzte.

## • Euskadiko Eskuhalo Selekdoak Ane Larrañaga deitu du

Kadete mailako Euskadiko Eskuhalo Selekzioak Ane Larrañaga, 14 urteko eskubalo jokalaria deitu du. Aurrez 4 elgoibartar deitu zituen Gipuzkoako Selekzioak eta handik Ane izan da Euskadiko Selekzioak konbokatzen duen bakarra. Uztailaren 15ean eta 16an Donostian egingo dute kontzentrazioa, eta handik Alacante aldera abiatuko dira. 1. IZ-Tailaren 2letik 25era bitartean partiduak jokatuko.

## 60 pilotari inguru aritu dira Lagunak Pilota Txapelketan

Finalak San Juan bezperan jokatu ziren Plaza Handian

**P**asa den ostiralean, San Juan Bezperan jokatu ziren Lagunak Pilota Eskolak urtero antolatzaren duen txapelketako finalak. Aurten 60 neska-mutilek hartu dute parte txapelketan 5 mailatan banatuta. Maiatzaren erdialdean hasi ziren partiduak eta Plaza Handiko frontoira inguratu direnek ikusi ahal izango zuten moduan, intentzioa eta ilusioa soberan dute pilotari gaztetxoek. Partidu orekatuak eta tanto polit askoak ikusteko aukera ere izan da.



Lagunak Pilota Txapelketan aritu diren piktariak, eta antolatzadeak ageri dira argazkian.

Honako hauek izan ziren finalerako emaitzak: Benjamin B mailan, Ines Ga-

bilondok 18 eta 9 irabazi zion Julen Conderi. Benjamin A mailan, Patxi Larrea 18 eta 15 nagusitu zitzaion Gaizka Unamunzagari. Alebin nesketan, Olatz Txurrukak 18 eta 6 irabazi zion Melany Arrizabalagari; eta Alebin mutiletan Iker Txurrukak 18 eta 10 irabazi zion Markel Porturi. Azke nik, kadete mailan Eneko Loiola izan zen txapeladuna 22 eta 12 irabazi baitzion Eneko Ulazari.

<b>E.11.-A-1-- :-ZAK</b>
<b>Esku pllota</b>
Sigmako Txapelketa Otaño/J. Loiola 22 - Angel/Eneko 21 Esnaola/Balzola 20 - Karmel/Egatia 22 loiola/Arrillaga 22 - Ulazia/Arizmendi 5 Karmel/Egatia 22 - UribialLazarobaster 6 Larrea/Larrafiaga 7 - Txurruka/Arrizab. 18 (Aleb.)
Lagunak Pilota Txapelketa Finalak Julen Conde 9- Ines Gabilondo 18 (Benj. 8) Pabd Larrea 18 - G. Unamunzaga 15 (Benj A) Oht2Txurruka 18 - Melany Arrizab.6 (Aleb. nes.) Markel Portu 10 - Iker Txurruka 18 (Aleb. mat.) Eneko Loiola 22 - Eneko Ulazia 12 (Kad.)
<b>Futbol 7</b>
Los Intocables 1- Astigarraga Kiroiak 4 Mazantini Tabema 1- Pastong Pila 3 Vultur Gryphus 3- Ford Lerun 2
<b>AGENDA</b>
<b>Futbol 7, Mintxetan</b>
1, laninbata 10:00 Litoplasma - Harzubi 10:00 R. oso Takata - Malas Hierbas 11:00 Old Boy's - Inkisicion 11:00 C.O. Kadar - Lojantzi 12:00 Irion - Hashneken 12:00 Ke+da - Kashima Brewers
<b>2, igandea</b>
11:00 Aide Globun - Grasshopper 11:00 Spartak Pitxote - Patxi Tabema 12:00 Artebe - Zer ote? 12:00 E90 - Softlan 4, astearlea 20:00 Antzarrak - Malas Hierbas 20:00 Litoplasma - R. Oso Takata B 21:00 Zer ote? - E90 21:00 Artebe - Celta del vino

### 5 elgoibartarrek '3 handiak' mendi

amaitu zuten

uis Arosa, Pilar Arriola, J.M. Gabilondo, Iñaki Izagirre eta Kerman Moreno elgoibartarrek 3 handiak mendi itzulian hartu zuten parte pasa den ekainaren 17an. Ostiral gauerdian 600 partehartzaille abiatu ziren Arabako Zaldondo herritik. Aitzgoni, Anboto, eta Gorbea mendiak (hiru handiak) igo ostean, 200 mendizale inguruk bakarrik Iortu zuten proba bukatzea. Guztira 92 km. dira. Elgoibartarrek esan digutenez beroa eta hego haizea izan ziren menclizaleen arerio nagusiak. "Inoiz baino jende gehiago erretiratu zen beroaren erruz eta asko denboraz kanpo iritsi ziren, 22 ordu eta erdi baita proba bukatzeko denbora topea. Gaueko 12:00etan 30 gradu egiten zituen. Gauean



hotzik ez pasatzeko eskularruak sartu genituen motxilan, baina alfer alferrik. Beroa dela-eta, 12 bat litro ur edango genituen gutxienez". Lehen elgoibartarrak 19 ordutan amaitu zuen itzulia, eta azkenak 22 ordutan. Morkaiko Mendizale Elkartearen ordezkatu zuten elgoibartarrek, eta taldeak sailkapenean I 0. postuan amaitu zuten.



### San Pedroko 2. Zaldi Lasterketa igandean, hilaren 2an, izango da

Pasa den urtean egin zuten estrainekoz Zaldi Lasterketa San Pedron, eta aurten ere proba ikusgarri hau ikusteko aukera izango dugu domekan, uztailaren 2an. Antolatzailleek adierazi digutenez, dagoeneko 8 partehartzaillek eman dute izena, tartean San Migel eta San Roke bailarako zaldizaleek. San Pedroko baselizaren inguruan prestatu duten zirkuituan egin beharko dute lasterka zaldiek. Irabazleak 30.000 pta. jasoko ditu, bigarren sailkatuak 20.000 pta. eta hirugarrenak, berri, 10.000 pta. Lasterketa bukaeran partaideentzat lancha izango da.



# Telefono mugikorrentzako antena jarriko da Ballegoitxi baserriaren gaineko lurretan

*Euskaltel eta Telefonica moviles* enpresek antena bakarrarekin eskainiko dute zerbitzua

**E**ricsonek telefono mugikorrentzako antena bat ipini zuen Ballegoitxi baserriaren gaineko aldean. Bertatik kendu ostean, *Euskaltel* enpresarekin harremanetan jarri da Uclala, eta honek antenak jartzeko leku posibleak zein diren adierazi dio. Izan ere, "ez da egokia inguru guztia antenaz betetzea, enpresei hala komeni arren".

Eu.skaltelekoek, azterketa bat egin ondoren, Elgoibarren telefonia zerbitzua eskaintzeko lekuri proposenak aukeratu zituzten. Horretarako kobertura, mimetismoa, obrak eta kontratazioa hartu ziren kontutan. Gero, Udaleko Gobernu Batzordeak antena orokorra Ballegoitxi baserriaren goiko aldean jartzea erabaki zuen, honela autopista eta Azkarateko parte hartuko lirakeke. Bestalde, antena txikiago bat ipiniko dute Salbador-burun herri barruko zerbitzua eskaintzeko.


## *Telefanica*

*Euskaltelek* ezezik *Telefrinicak* ere bere antenak jarri nahi ditu Elgoibarren. Baina herrian hainbeste antena ipintzeak eragingo lituzkeen kalteak ikusita, Udalak antena guztiak leku berean kokatzeko proposamena luzatu du. Honela bi enpresak ados jarri beharko dira eta *Euskaltelek* Ballegoitxi gainean jarriko duen postean *Teleffinieak* bere antena jartzea da egokiena. Bestalde, *Teleffinieak* badauka herri barruko zerbitzua eskaintzeko antena bat ere Garate inguruan.

Beste eskaera batzuk ere ba omen daude, baina Udaletik adierazi digu-

**Udalak ez du onartuko enpresa hakofizak nahi duen lekuan eta ahalik eta merkeen antenak jartzen hastea.**

tenez, "guk ez dugu onartuko enpresa bakoitzak nahi duen lekuan eta ahalik eta merkeen antenak jartzen



hastea. Antena guztiak leku berean jartzea da asmoa. Orain *Euskaltel* eta *Telefnica* baino ez daude, baina beste enpresak lizentzia eske agertzen direnean, bakoitzari ezin zaio nahi duen lekuan antenak jartzen laga. Horregatik jendeari ahalik eta traba gutxien egingo dion tokian ipintzen saiatuko gara".

Beraz, enpresen arteko akordioa egonez gero, Udalak lizentziak emango ditu eta oraingoz Ballegoitxi baserriaren gaineko partean dauden lurretan jarriko da antena orokorra.

*Ballegoitxiko antenaz gain herriko zerbitzua eskaintzeko antena txikiago bat ipiniko dute Salbador-burun.*

## Udalak San Rokerako bidean, Kiroldegian eta Karakolean obrak egingo ditu

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko oinarriak ere kaleratu dituzte

**E**lgoibarko Udalak herrian hainbat berritze lan egiteko asmoa dauka, eta horretarako enpresak kontratatze deialdi publikoa egin du. Honako hauek dira egin nahi dituzten lanak eta aurrekontuak: San Rokerako bidea zabaltzea (14 milioi pezeta), karakolaren konponketa (24 milioi pezeta) eta Kiroldegiko kantzaren teilatua berritzea (9 milioi pezeta). Eskaintzak uztailearen 4a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean eta oinarriak Kopilan kopistegian jaso daitezke.

Babes ofizialeko etxebizitzak Bestalde, Urruzunoko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko enpresentzako deia zabaldu du udalak. Oinarriak ekainaren 12ko buletinean kaleratu ziren eta uztailearen 3ra arte eskaintzak aurkezteko epea zabalik dago. Behin proiektua enpresa bati agindu ostean, hilabeteko epea izango du Udalaren lizentzia eta Eusko Jaurlaritzako behin behineko kalifikazioa eskatzeko. Hauek jasotakoan urtebetean amaitu beharko dituzte lanak. Guztira 120 etxebizitza daude eraikitzeko eta aurrekontua 1.047.253.576 pezetakoa da.

## FARMAZIAK

- |   |               |                                    |
|---|---------------|------------------------------------|
|   | <b>Egunez</b> | <b>Gauetz</b>                      |
| 1 | *Bidasolo     | Escala                             |
| 2 | *Bidasolo     | Escala                             |
| 3 | Etxeberria    | Etxeberria<br>(Errosario kalean)   |
| 4 | Escala        | Escala                             |
| 5 | Bidasolo      | Bidasolo                           |
| 6 | Etxeberria    | Etxeberria<br>(Errosario kalean)   |
| 7 | Fernandez     | Fernandez<br>*(eguerdiko 2ak arte) |

**ESCALA:** Rekalde, 1  
Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9  
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
2 igandea Zabaleta

## astelehena

22:15 ZINEA  
"Al

## 1 larunbata

19:30-22:15 ZINEA  
"Al limite"

22:45 UDAL MUSIKA  
**BANDAREN**  
**KONTZERTUA**  
Udaletxeko arkupeetan

## osteguna

21:30 PETI eta GABI  
Blues akustikoa  
Toletxe tabernan

Elgoibarko Izarra	943 741626
Kiroldegia	943 744415
Kontsumo Bulegoa	943 743088
Liburutegia	943 743525
Musika Eskola	943 742145
Mintxeta	943 744315
Parrokia	943 740842
Postetxea	943 741547
Gaztetxea	943 743572

## 30 ostirala

18:30 DIPLOMA  
**BANAKETA**

Ezenarro Institutuko  
Areto Nagusian

19:00 ARIGERA JAIXA

22:15 ZINEA  
"Al limite"

## igandea

19:30-22:15 ZINEA  
"Al limite"

18:45 GELATXOrekin  
**DANTZALDIA**  
Plaza Handian

21:30 FANBALTZ taidea  
Euskal Folka  
Toletxe tabernan

## 7 ostirala

8:00 SAN FERMINetako  
**ENTZIERROAK**  
**ZUZENEAN**  
Kultur Etxean  
(Pantaila handian)

18:30 ODOL  
**ATERALDIA**

22:15 ZINEA  
"Gigol"

Haur Eskola	943 74 21 41
I.M.H. (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAI

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Espahol	943 74 10 82
Zazpiki Irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

# NE A



Zuzendaria: Martin Scorsese.  
Antzezleak: Nicolas Cage,  
Patricia Arquette, John Goodman.

## "Alimite"

Frank Piereek (Nicolas Cage) anbulantzia batean egiten du lan New York-en 90. hamarkada hasieran. Hiriko kaleak erdi hildako eskale eta zaurituz jositadaude. Frankek gauetz egiten du lan. Urte mordoan egin ditu lanbidean eta nekatuta dago biziak salbatzeaz eta horrenbeste jende hiltzen ikustez. Pelikulak Franken laneko azken 56 orduak ezagutzera gonbidatzen gaitu. Hurbilketa honek Frankek bizi duen krisi moralara eta espiritualera erakutsiko digu.

..... R ..... al

111

11 RRIERREZ



## SAN PEDROKO

### jala. 1-c

#### LARUNBATA, uztailak 1

**17:00** Umeentzako jolasak,  
Atxutxiamaiaka taldeak antolatuta

**18:30** Poniak eta zezanak

**21:00** Bertso afaria: Aitor Mendiluze, Jose Agirre, Jose Luis Gorrotxategi eta Xabier Legarreta. Gai jartzailea: Fernando Loiola. Ondoren, gaupasa Ansorregi eta Larrañaga taldearekin. Goizaldean, Txokolatada.

#### IGANDEA, uztailak 2

**10:30** Meza

**12:00** Zaldi lasterketa Sariak:  
30.000 pta., 20.000 pta. eta  
10.000 pta.

**14:00** Auzoko Jubilatuentzako  
bazkaria

**18:00** Idi-demak. Partehartzaileak:  
Oikiako Pako Epiola, Billelako  
Iñaki Lopategi eta Errezilgo Jose M.  
Uzkudun.

Egun guztian zehar Felix Astorkia  
eta Adrian Larrariaga triki tiñari ak.

#### • Udal Musika Bandaren kontzertua larunbatean, uztailaren 1 ean



Bihar zapatua, hilak 1, Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du gaueko 22:45ean hasita udaletxeko arkupean. Jose Antonio Osorok zuzenduta, hauek dira joko dituzten piezak: "Lekunberri" (J. Franco), "West Side Story" (L. Bernstein), "Rock Around the Clock" (C. Freedman), "Moment for Morricone" (E. Morricone) eta "Vals de Astrain" (Astrain).

#### • Odol Ateraldia trztallaren 7an

**Odol** Emaileen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiralean, hilak 7, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta bereziko 18 urtetik gorako gazteei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorarazi nahi diete.

#### • Egur Tailerraren erakusketa uztailaren 9ra arte ikusgai

Egur tailerreko ikasleek urte guztian egindako artelanak jarri dituzte ikusgai Kultur Etxean. Ekainaren 27an inauguratu zuten erakusketa eta uztailaren 9ra arte egongo da irekita. Lanak ikustea nahi duen edonork 19:00etatik 21:00etara izango du aukera aste egunetan, eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

#### • Gaur, hilak 30, diploma banaketa Mekanikako Areto Nagusian

Gaur, hilak 30 arratsaldeko 18:30etatik aurrera, 1999/2000 ikasturteko diplomak banaketa egingo da Ezenarro Institutuko Areto Nagusian. Logse 2 eta Hezkuntza Zikloko 2. mailako ikasleek jasoko dituzte diplomak. Gurasoak, senideak eta irakasleak ere bertan bilduko dira. Gainera, Institututik adierazi digutenez, sorpresaren bat edo beste izango da.

# TIO UF XE

## TABEKNA

Pedro Muguruza 8, behea  
Tel. 943 74 19 48

arabiar

eg

## uztcc,( 2

**Debako FANBALTZ taldea**  
EUSKAL FOLKA

*Egun honetan*  
**3 ENTSALADA KLASE,**  
**BOKATAK** eta  
**KAZUELITAK**  
*izango ditugu aukeran.*

uztailak 6,  
eguna  
**21:30**

**Bergarako PEPI eta GABI**  
BLUES AKUSTIKOA

**igg** ELGOIBARKO

## Iana

### • ESKAINTZA •

- Pertsona arduratsua behar da adineko emakumea zaintzeko. 6119 94 69 40, 677 76 65 48 (gauzez).
- Emakumea behar da abuztuan arratsaldeko 16:00tik 21:00era Deban ume bat zaintzeko. u 943 19 12 10.
- Emakumea behar da abuztuan Deban bi ume zaintzeko 10:00tik 15:00era eta 17:00tik-21:00era. e 696 09 79 46.
- Neska behar da egun guztian zehar haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 8:00etatik 13:00ra bi-tartean deitu. s 943 74 45 57 (Miren).
- Pertsona arduratsua behar da urte osoan zehar ordu batzuetan bi ume zaintzeko. Euskaraz dakiena. 1+ 626 23 75 70.
- Neska euskalduna behar dut arratsaldeko etxeko lanak egiteko. tr 943 74 39 98.
- Pertsona bat behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko. tr 943 74 04 56. Maria.
- Sukaldaria behar da. tr 943 20 32 91.
- Mutila behar da tabernan lan egiteko. Arratsaldetan eta asteburuetan. s 943 74 28 97
- Neska behar da Jubilatuen Bilto-kiko tabernan lan egiteko. Ekainaren 23tik uztailearen 23ra arte. tr 943 74 05 26
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. w 943 74 42 43 (gauzez)
- Janari banatzailea behar da. Pertsona arduratsua eta B-1 gidabaimena duena. a 943 74 18 67 (20:00tik 23:00ra).
- Informatikan lizentziatua behar du irakasle lanetarako. rs 943 74 08 50
- Neska arduratsua behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. e 943 70 15 86

### • ESKAERA •

- Neska eskaintzen da uztailean edozein postutan lan egiteko. ir 943 74 33 42.
- Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. e 636 04 70 28.
- Euskarazko klaseak ematen dira arratsaldetan. tr 667 99 16 37

## Oharra

Merkatu txikirako oharrek asteazken eguerdia baino lehenago ekard behar direla gogorarazten dizuegu.

## Salerosketak

- Egurrarekin berotzen den Herigon Franflin 82 txitiniua, lasterketako bizikleta eta ispilu eder bat ditut salgai oso prezio merkean e 943 74 17 15
- Garajea eta lokal komertziala salgai Mendaron. Azpilgoeta kalean. 40 m<sup>2</sup>. tr 943 75 50 26
- Astra GSI 16V txuria salgai, SS-AS. Aluminiozko Ilantak, egoera onean. 19:30tik aurrera deitu. tr 656 73 29 85
- Pisua saltzen dut Plaentxin. 50 m<sup>2</sup>. Amueblatua, eguzkitsua eta berritua. 5.800,000 pta. e 943 75 21 36
- Herri erdian pisua salgai. 4. solairua da eta igogailurik ez du. e 943 74 02 69.
- SS-AU Opel Corsa salgai. Egoera onean. TY 943 75 50 35 (Imanol)
- Katu pertsua bat saltzen da. Ona da. its 943 74 43 88/607 47 74 05 (Kristina)
- Ford Mondeo 1.8 TD salgai. tr 943 74 43 25 (gauzez).
- Opel Astra Van (2 eserleku), 1.7 TD salgai. Oso eguera onean. Lau urte eta erdi ditu. Beti garajejan egon izan da. e 629 44 45 35
- Poleazko arku bat saltzen dut, osagarri eta guzti. tir 943 74 07 09 (Asier).
- Mountain bike bizikleta salgai. e 943 74 39 75 (Arrate. 20:00etatik aurrera).

## Eliebizitzak

- Alokairuan dagoen pisti bat nahi nuke Elgoibarren. Presa dut. ☎ 636 37 58 66
- Apartamentua dut alokatzeko Benidormen. "Levante"ko hondartzara ematen du, piszina eta parkina ditu. ☎ 943 74 38 27/943 74 2031.
- Gela bat daukat alokatzeko, 71 943 74 18 81
- Apartamentu bat alokatzen da Nojan, ekaina, uztailea eta irailean. Astebete edo hamabostaldietarako. Irr 943 74 09 57.
- Uztaileko apartamentua alokatzen da Torreviejako "Playa del Cura"n. s 943 74 24 50
- Apartamentua alokagai Torreviejan. Hondartzatik gertu. Piszinarekin. Tr 943 74 23 63

## Partikularrak

- Kontabilidadeko klase partikularrak hartuko genituzke uztailean Elguibarren. Posible bada, goizez. Rr 943 74 30 30 (Estitxu), e 943 74 26 14 (Ane).

## Bestelakoak


- Belarritakoa galdu nuen Artetxe eta Herriko Antzokia bilatean. Perla zuria eta brillanteak ditu, tr 943 74 27 42
- Poltsa bat aurkitu dut Plaza Txikiko parketn. Barruan hi soineko daude, Udaltzaingoa dago.
- Errosario kaleko portal batean harruan sandaliak dituen patinen poltsa beltz hat aurkitu duenak eraman dezala Udaltzaingora edo deitu 943 74 05 37 telefonora.
- Gameboyrako bi joku aurkitu ditut Agirretorre inguruan. 73. 943 74 07 85.
- Ekainaren 3an gizonezkoen erlojua galdu nuen. Aurkitu duenak deitu 943 74 14 52 telefonora.
- Ekainaren 9an, AX ilun bati eta Visa gorri bati kolpea jo zioten Santa Anako errotondan. Informazioa eman dezakeenak 943 74 01 17ra deitu,
- Zaindu ezin dudala-eta, samolledo arrazako txakur bat oparitzen dul..a 943 74 28 69 Cristina
- Unezko pultsera bat aurkitu dut. Tr 943 74 32 96
- Maiatzaren 5ean, norbaitek plaza-ko arkupetan, "game boy" hat aurkitu bazuen, mesedez eraman dezala Udaltzaingora. Eskenik asko.

## Agurrak


- Zorionak Laura Mujikari, hila- ren 16an 25 urte bete zituelako. Nadia eta Noraren partez.
- Zorionak Patsi Loiolari, Nahaste Borraste proban parte hartu zuelako eta 2. postua lortu zuelako 16 urtekoen aurka. Segi horrela, Patxi!! Nor ote naiz'?
- Zorionak Pitufo makineroi, ekainaren 22an 10 urte bete zituelako.
- Zorionak Melani, Jon, Iasu, Maialen, Edu eta Nereari beren urtebetetzean Herri Eskolako 2.B-koen partez.



- Zorionak Lauzi. Muxu potolo-potolo bat axeko partez eta bereziki Ikerren eta Krisen partez.



- Zorionak txapeldunak! Opor ezin hobek igaro ditzazueta, merezi duzue-eta!!




- Zorionak Fran eta Adel zuen ezkontzaren partez. Iloba Aitor eta Ikerren partez.



- Maite zaitugun guztion partez zoriontzan zaitugu zure urtebetetzean.



- Zorionak Gorane Gonzalez, hila- ren 28an 9 urte bete zituelako. Familiaren eta hereziki, Eneritz-en partez.



- Zorionak Maitane Carori, atzo, hilak 29, 7 urte bete zituelako. Etxekoan, osaba-izeharen eta hereziki, Jonen partez,



- Zorionak Mikel, bihar zure lehenengo urtea beteko duzualako. Muxu hat eta ondo pasa eguna. Familialcoak.



- Zorionak Anari, uztailearen 3an urteak beteko dituelako. Familiaren partez. Muxu hat.



- Zorionak eta muxu handi bat atzo 6 urte bete zituelako. Nerea, Ion, eta familiaren partez. Baita Elenaren partez.



# ARIGERA JAIXA

Ekainak

# 30

ostirala

**21:00**  
**AFARIA**

**ondoren**  
**ERROMERIA**

**19:00**

**TXIKITEOA**

Raltzola anak  
trikitilariekin  
**TOLETXEN** hasi  
eta herriko  
tabernetan

**AFARIRAKO**  
**TXARTELA:**  
**1.000 pta.**

**TXARTELA EROSTEKO:**

Udal Euskaltegia (943 74 27 31)

AEK Euskaltegia (943 74 13 32)

EIgolbarko Izarra (943 74 16 26)

**~Puligen**  
**arigera**

Holduen euskalduntze-alfabetatze suspartzeko proiektua

ELGOIBARKOIZARRA Kultur Elkartea • AEK Euskaltegia • Udal Euskaltegia • Elgoibarko Udala



# ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak

## AUTO-ESKOLA



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*



# ARE1113111KO zinea

uzta

J4

ubTIRALA

HAS KO DA



KULTURA

gaueko 22:30ean

FORUEN PLAUtw, 1

14;01